



24. KORRIKA FURGONETATIK



edukiak grabatu, gidatu, hedabi-deetarako konexioak egin...

Eta, noski, aldiro-aldiro harrera beroa egin, mikrofonoa eskuan duen animatzailearen laguntzaz. Korrika 23:40an iritsi da Lekorne-ra (Lapurdi). Bengala arrosak eta zuziak eskuan egin diote harrera. 82 zenbakia duten petoak soinean, Baigura ikastolako ikasleek hartu dute lekukoa, txandaka. Masailetan ikurrinak marraztuta batzuk, eta irribarre zabala agerian besteak: lanketa egina dago, gozatzea baino ez da falta. Igara dira Etxebarne ostaturik ere: barruan izango dira ikastolan prestatutako mezuak.

Etengabe adi

Giro ona ezinbestekoa da, eta elkarri laguntzea ere bai. «Hartuko dut nik kamera»; «zer moduz gidaria? Aldatzea nahi duzu?». Lekuko eramailearen atzetik joateko eskatzea, errepidearen alde bakarra hartzeko eskatzea eta lekukoa ondo doala ziurtatzea ere haien lana da. «Kontuz, jende pila bat dator segituan», esan du norbaitek. Adi jarri dira denak. «Lasai, txintxo-txintxoak dira: ordenan sartu dira». Eta hasi dira aldarrikapenak bata bestearen atzetik:

«Pilotan ere airez aire euskaraz»; «Eszena gainean ere euskaraz»; «Euskararen erritmoan, Lekorne dantzan».

Leloek bultzatuta-edo, hasi da taldea berotzen, eta gaua animatzen. Furgoneta barruko ordenagailua hartu dute: musika jartzeko eta argazkiak Flickr-eko kontura igotzeko baliatzen dute, besteak beste. «Bueno, gure musika jartzeko ordua iritsi da: gure erreproduzio zerrenda osatuko dugu. Zer abesti nahi duzue?». Bakoitzak egin du bere ekarpena: Maruxak taldearen *Ur goiena, ur barrena*, Miruaren *Salda badago*, Naxkerren *Elizondo*... Eta zerrendaren izena? Hori ere taldean erabaki behar da: «Gaua 'brilli-brilli'».

Atzekoa ere, funtsezko

Baina hamahiru orduan badaude bestelako behar batzuk ere. «Pixa egitera joango naiz, ados?». Heldulekuari eutsi, jendeari bizkarra eman, eta furgonetaren erritmora oinez hasita jaitsi behar da furgonetatik. Jendeak emozioaren emozioz arreata lehen furgonetan jartzen badu ere, atzetik beste bat izaten da, eta han dago komuna. «Ohartzen

